



- **Dozena bat arrano beltz bikote bizi dira Arabako hegoaldean.**
- **...proteinak ezinbestekoak baitira bizi organiko mota guztientzat.**

Peter William Atkins (2011): *Erreinu periodikoa*. EHUpress, ZIO bilduma. (Euskaratzailea: Juan Garzia).



# Oso bide emankorra dugu hitz-elkarketa. Atal bikoia izan ohi da, eskuarki:

*abiadura-aldagailu, adarmotz, adimen-urritasun, aditz-erro, aditz-izen, adopzio-lege, afari-lege, ageri-agerian, aitzin-gibel, aizkora-kolpe, angeluzuzen, animalia-zelula, argi-ilun, argi-urte, asentsio-belar, atomo-zenbaki, barne-araudi, batasun falta, bozeramaile, eguzki-energia, eguzki-zelula, gazi-geza, giza eskubide, gurutze-ganga, haragijale, idazmakina, ihespuntu, irrati-entzule, Izeba Maria, kris-kras, lege-gordailu, luze-zabal, osagai, pausaleku, sorleku, sudurluze, taun-taun, teilatu-belar, tilin-talan, xukapaper, zelulabakar, zelula-mintz...*



Bi hitz baino gehiagoko elkarteetan, ordea, zalantzak sortzen dira: esate baterako, hitz-elkarketako lehen osagaiari **izenondo**a erantsiz gero, joera nagusia da elkarketa desegin, eta sintaxi-bide arruntak erabiltzea. Honela:

ikasle-zerrenda ›

› **?ikasle berri zerrenda** ›

› ikasle **berrien** zerrenda



## Hauxe dakar Euskaltzaindiaren 25. arauak, auzi horri dagokionez:

“Tartean adjektiboren bat sartzen denean hitz-elkarketarik ez egin: *hautagai-zerrenda* baina *hautagai berrien zerrenda* (ez *hautagai berri zerrenda*); *lan-eguna* baina *lan gogorreko eguna* (ez *lan gogor eguna*).”

### Oharra

Gerora, **lanegun** forma hobetsi zuen Euskaltzaindiak, eta hala agertzen da *Hiztegi Batuan*.



Dena dela, zenbait kasutan berrelkarketa onargarria dela dio, arau berean, Euskaltzaindiak:

*“Eguzki-lore gisakoen alorreko irizpen-, multzo-, zati- eta mota-elkarteak. Beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute hauek honelako hedapenatarako: butano-saltzaile itxura, kafe erre usaina, zakar-biltzaile taldea, orein-haragi zatia, perpaus subordinatu motak.”*

Ikusten denez, izenondoa tartean dute horko bi adibidek:

- *kafe erre usaina*
- *perpaus subordinatu motak*



Bai tradizioan, bai gaur egungo prosa zainduan, halako adibideak ditugu, eta egokitzat jo behar dira:

## Multzo-elkarteak

• *Turista ilehori bikote bat metro-sarrerari begira.*

Denis Guedj (2006): *Loroaren teorema*. EHU, ZIO bilduma.  
(Euskaratzailea: Jon Muñoz)

• *Gelatinazko soka bat da muskulu normal bat: zuntz fin andana bat.*

John Lenihan (2006): *Giza gorputza lanean*. EHUpress, ZIO bilduma.  
(Euskaratzailea: Irene Aldasoro)



- Neuronek [seinaleak] garraiatzen dituzte, axoietatik zehar eta **sinapsi elektrokimiko sorta** baten bitartez, garunean barrena.

Antonio Damasio (2012): *Descartesen hutsegitea*. EHUpress, ZIO bilduma.  
(Euskaratzailea: Isabel Etxeberria)



- Zenbait gauza ustelduri lotzen zaizkion **euli lizun bilduma bat**.

J. Haraneder, *Philotea*, 1749. [Moldaturik]

- **Jende arraro samalda bat bildu zen plazan.**



## Zati-elkarteak

- ***Oihal zahar zatiakaz egindako moltsoa.***

Txomin Agirre, *Kresala*, 1906

- ***Arrain egosi puska bat eskaini zioten.***

## Irizpen-elkarteak

- ***Urrunera hedatzen zuen arbi ustel usain bat leher egitekoa.***

Jean Saint-Pierre, 1919





## Mota-elkarteak

- **Harri preziatu motak.** \*Harri preziatuen motak
- **Inurri tropikal motak.** \*Inurri tropikalen motak
- *Esperientziak gidatzen dituen garuneko sektore modernoetako (esate baterako, neokortexeko) zirkuituen jarduera ezinbestekoa da **irudikapen neural mota jakin bat** sorrarazteko...*

Antonio Damasio (2012): *Descartesen hutsegitea*. EHUpress, ZIO bilduma.  
(Euskaratzailea: Isabel Etxeberria)

\*irudikapen neuralen mota jakin bat



## Gehiago jakiteko:

- Euskaltzaindia (1995): "Hitz elkartuen osaera eta idazkera" [Linean: <http://www.euskaltzaindia.net>]
- LEF Batzordea (1992). *Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Hitz-elkarketa/4*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Patxi Petrirena (2011): "Izenondoa hitz-elkarketaren barruan", in *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 161.-162. or.